

PATXI ZABALETA

Aralarreko kidea



«Herri honek demokrazian sakondu nahi du, ez murriztu»

«Lege berri honek kaltea ez dio alderdi bakar bati egiten, baizik demokraziari eta herri guztiari. Horregatik, zentzu handia dauka elkarrekin deitutako manifestazio honek. Bere esanahi nagusia da herri honek demokrazian sakondu egin nahi duela eta ez murriztu, hori baita bakerako bidea. Horregatik, garrantzitsua da ideia, sentsibilitate eta izaera anitzetako jendea hemen elkarrekin bildu izana».

RICHARD IRAZUSTA

Abertzaleen Batasuneko bozeramailea



«Eragileek jakin behar dugu pausoak elkarrekin ematen»

«Gizartea esaten ari da behar direla horrelako gauzak antolatu eta aldarrikapen batzuk elkarrekin defendatzeko momentuak bilatu. Euskal Herriko gehiengoak pentsatzen du ideia guztiak, proiektu guztiak direla Euskal Herriaren aberastasuna eta hori defendatu behar dugu denok elkarrekin. Egoera larriak gertatzen direnean alderdiek, sindikatuak eta eragileek jakin behar dugu pausoak elkarrekin ematen».

JOSE ELORRIETA

ELAko idazkari nagusia



«Alderdi Legearen helburua gure herria desorekatzea da»

«Lege hori herriaren kontra doa, antidemokratikoa da, bere helburua herria desorekatzea da, gizartearen zati bati adierazpen askatasuna kenduz. Horregatik, herria mobilizatu da, horrelako legerik ez dugula onartzen esateko. Gaurko manifestazioa handia eta plurala da, eta horixe da bidea: horrelako erabakien aurrean bildu eta dinamika bat lortzea. Legeak horixe lortu du: honelako manifestazio bat egitea».

RAFA DIEZ

LABko idazkari nagusia



«Espainiak ezin du esan zein den legala Euskal Herrian»

Manifestazioak ezezeko biribila eman dio PPren strategiari, konfrontazioa areagotu besterik ez baitu egingo. Espainiako Gobernuak ezin du esan zein den legala eta zein ez Euskal Herrian; euskal gizarteak berak zuzendu behar du bere prozesu demokratikoa. Gaur eta asteazkeneko greba orokorrean, Euskal Herria, herritarren iritzia errespetatuko duen marko baten alde martxan dagoela erakutsiko dugu».



EA-KO KIDEAK ETA JAURLARITZAKOAK. Eusko Jaurlaritzak ez zion babesik eman manifestazioari. Sabin Intxaurrea, Joseba Azkarraga eta Angeles Iztueta sailburuak, ordea, joan ziren EAko alderdikideekin.



EZUSTEKOA, ARZALLUZ. Xabier Arzalluz EAJko lehendakaria ez zuen esan nahi izan manifestaziora joango ote zen, baina agertu zen.



BATASUNEN KIDEAK. Arnaldo Otegi, Joseba Permach eta Joseba Alvarez Batasuneko mahaikideak, Rafa Diez LABeko buruarekin.



NAHASIAN. German Kortabarria Erramun Osaren ondoan ageri da. Atzean, Juan Karlos Goienetxea.



FERNANDEZ ETA LABOA. Jonan Fernandez Elkarri-ko koordinatzailea, Mikel Laboa kantariarekin.



MENDIGUREN. Xabier Mendiguren Bereziartu, itzultzailea eta Kontseiluko idazkari nagusia.



PERREXILA. Saltsa guztietako perrexila, manifestazio bat galtzen ez duten horietakoa.



ARALAR-EKO KIDEAK. Jose Elorrieta ELAkoa; atzean Patxi Zabaleta eta Ramon Zallo.